

# MUGARRIEN AUZIAK

Eztabaida asko sortu izan oi dira errien artean, euren mugak dirala ta ez dirala. Ona zelan azaltzen dabezan erri batzuk, euren mugen gora-berak. Emen Leiza eta Goizuetakoentzat esaten dana, beste erri batzuetan be bardintsu esaten da. Ona emen Leiza eta Goizueta´ko ipuin zar au:

Erri bi onein arteko mugak jarri bear ebezalata, erabagi au artu eben, orretarako.

Goizeko seiretan, erri bakoitzetik neskatilla batek urtengo eban beste errirantza. Eta biak alkar egiten eben lekuan, antxe jarriko ebezala erri bien arteko mugarriak.

Leiza´koa berealaxe asi zan lasterka, joan, joan, eta joan... Goizueta´koa, ostera, bere ule mototsak orraztutzen gelditu zan luzaro, eta geroago abiau.

Leiza´koa urriñago eldu, jakiña, eta orregaitik, erri bien arteko mugarriak, Goizueta´tik askozaz be urrago dagoz.

Beste ipuin zar au esaten da Otxandio´n, mugarriari buruz: Otxandio eta Aramaio´ko gizonak batu ei ziran, bein, euren errietako mugarriak ezartzeko.

Eta erabagi au artu, orretarako:

Oillarrek joaz bat-batera, gizon batek urtengo dau Aramaio´tik eta beste batek Otxandio´tik. Eta biak alkartzen diran lekuan jarriko da mugarri barria.

Aramaio´ko korrikalariak zuzi bat artu eta oillategian sartuaz, oillarren aurrean jarri eban. Eta bereala egin eban kukurruku bertako oillarrek, egunsentia zalakoan. Baita, une atan bertan mutil ori ariñeketan asi.

Otxandio ondoan egoan egunsentirako; eta an aurkitu eban Otxandio´ko mutilla, ariñeketan asi barri. Orregaitik ei daukoz Aramaio´k bere mugak Otxandio´ko ate ondoan.

*Irakurlea: Latze Uranga Basterra, Erizaina, Zornotza*